



Zerbitzu-kontratua

Euskaltzaindiak bere **EHS** proiekturako **markatzaile baten zerbitzuak** behar ditu.

Eskaera egitea

Markatzaile-zerbitzuak egiteko eskaera egin nahi baduzu, erabil ezazu testu honen bukaeran horretarako dagoen datu-orria. Bete ondoren, bidal ezazu ehs@euskaltzaindia.net helbidera edo Euskaltzaindiaren bulegoren batean postaz edo eskuz aurkeztu. Ondoko azalpenak aldeztu aurretik arretaz irakurtzea biziki gomendatzen dizugu. Epea **irailaren 12ra** artekoa da, eguerdiko 12ak arte.

Zerbitzu-beharraren jatorria

Euskaltzaindiak 2007an abiatutako Euskararen Historia Soziala (**EHS**) izeneko proiektuak euskararen 1980ra arteko historia soziala idazteko helburu. Hara iristeko lehendabizi gai eta garai jakinei buruzko *argazki* moduko ikersaioak bultzatzen ari da EHS. Eta ikersaio horiek idazteko materialak (dokumentuak eta horien barnean aukeratu diren aipu pertinenteak) datu-base batean biltzen ari dira. Datu-base horretan materialak egoki etiketatu behar dira, gainera, edonork bere lan soziolinguistiko historikoetarako aurkitu eta erabiltzeko moduan.

Helburu horri begira, proiektuaren lehen fasean (2007tik 2011ra bitartean) nagusiki eredu metodologikoa finkatzeko eta hura gauzatzeko oinarrizko tresnak diseinatu, esperimentatu eta abian jarri dira.

Proiektua garatu behar duen ekipoari laguntzeko Euskaltzaindiak markatzaile baten zerbitzuak kontratatu nahi ditu. Markatzaileak goian aipatutako etiketatze-lana egingo du, nagusiki: eskuratzen zaizkion testuetan datu bibliografikoak eta soziolinguistikoak identifikatu eta metadatuak edo etiketez egoki hornituko ditu. Horretarako berariaz prestatu den tresna informatikoa erabili beharko du. Markatzaileak soziolinguistikaren oinarrizko perspektiba lantzeko eta garatzeko prest egon behar du.

Funtzioak

Markatzaile horrek eman beharreko zerbitzuak honako hauek izango dira:

- Lehendik aurkitutako datu soziolinguistikoak horretarako sortu den metodologia-ereduaren arabera markatu edo etiketatzea;
- kasuan kasuko datu bibliografikoak jasotzea;
- informazioa datu-base informatizatuan iraultzea;
- proiektuaren datuen kudeaketarekin lotuta, arduradunek eska dezaketen beste edozein eginkizun betetzea.

Hori guztia arduradunek finkatutako markoan, kodetze-arduradunak emandako instrukzioen arabera eta elkarrekiko koordinazioan burutuko da.

Kontratazio-baldintzak

Kontratuaren izaera: merkataritza-kontratua.

Kontratuaren xedea: kontratuaren xedea da Euskaltzaindiak EHS izeneko proiektuaren zati bat landu edo prestatzea, eranskin bezala zerbitzu-kontratuan bertan zehaztuko dena.

Kontratuaren iraupena: 2011ko urriaren 1etik 2012ko abenduaren bukaerara arte.

Euskaltzaindiak Donostian dituen bulegoetan, EHUren Ibaetako campusetik hurbil, burutu ahal izango dira, burutu ere, kontratu honen ondoriozko zerbitzuak.

EHS egitasmoa lantalde desberdinek osatzen dute. Behar den koordinazioa ziurtatze aldera, Euskaltzaindiak finkatuko du kronograma eta zerbitzu ematearen jarraipena egiteko moduak.

Zerbitzuaren prezioa: gehienez, 36.409,42 € urtean, garbitu gabe. Euskaltzaindiak kopuru horren gainean BEZa ordainduko du, batetik, eta kopuru horri kasuan kasuko euspena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergarena, egingo dio, bestetik.

Markatzaileak bete beharreko baldintzak:

- Lizentziatura izango du gutxienez, Soziologian, Historian, Euskal Filologian edo lanarekin zerikusi zuzena duen beste gairen batean.
- Euskaraz ongi egingo du, ahoz eta idatziz; EGA edo baliokidea izango du, gutxienez.
- Gaztelania edo frantsesa ere menderatuko du.

Merezimendu gisa hartuko dira kontuan honako hauek:

- soziolinguistikazko eta historiazko ikasketak, lanak eta ikerlanak;
- informatika-tresnekin gutxienez erabiltzaile moduan duen eskarmentua;
- dokumentazioaren eta artxiboen erabileraren inguruan egindako ikasketak, lanak eta ikerlanak;
- hizkuntzak: menderatzen ez duten albo-hizkuntza (gaztelania edo frantsesa); ingelesa.

Aukeratzeko prozedura

Egutegia	
Zer	Noiz
Izangaiek datu-orria osatu eta Euskaltzaindian aurkeztu	2011ko irailaren 12ko eguerdiko 12ak baino lehen
Idatzizko ariketaren ordua izangaiei jakinarazi	2011ko irailaren 13an
Izangaiek idatzia egin/Epaimahaiak ariketa idatzia egoki egin duten izangaiei elkarrizketa egin	2011ko irailaren 15an eta 20an
Euskaltzaindiak emaitzak jakinarazi	2011ko irailaren 26an
Kontratazioa egin	2011ko irailaren 30ean, printzipioz
Zerbitzu-emaileak prestakuntza jaso	2011ko urriaren 3tik aurrera

Aukeraketa

Prozedurak hiru atal izango ditu:

- merezimenduak baloratzea (gehienez bost puntu);
- ariketa idatzia (gehienez hamar puntu);
- elkarrizketa egitea (gehienez hamar puntu).

Aukeraketa-prozedura hau burutzeko lau kidez osatutako epaimahaia izango da, horietarik hiruk boza izango dutelarik eta laugarrena ahotsa bai baina bozik ez, idazkaritza lanean jardungo baitu: epaimahaiak bere lana kideen artean egoki ikusten duen moduan banatzeko ardura du. Bere erabakiak hartzeko beharrezkoa duen gehigarriko informazioa eskatu ahal izango die izangaiei. Bere erabakiak behin betikoak dira. Eskaeretan aurkeztutako datuetan oinarriturik bere ustez egokiak izan daitezkeen izangaiei bakarrik deituko die idatzizko ariketa egitera; era berean elkarrizketara nor deitu eskaeretan eta ariketa horren emaitzetan oinarriturik erabakiko du.

Prestakuntza

Aukeratutako lagunak berriazko prestakuntza jasoko du:

- soziolinguistikako oinarrizko ezagutza eskuratu edo osatzeko;
- proiektua bera eta horretarako datu-jasoketa kudeatzeko definitu diren tresnak, metadatuak edo etiketak, jokabideak eta oinarrizko testuak ongi ezagutzeko.

Argibideak

Argibide gehiago behar duenak galdera honako helbide honetara bidal dezala: ehs@euskaltzaindia.net.

Eskaera egiteko datu-orria

Kopiatu eskaera-orria zure ordenagailura eta bete. Betetakoan bidal ezazu posta elektronikoz aurreko pasartean agertzen den helbide elektronikora. Euskaltzaindiak duen edozein

bulegotan ere aurkez daiteke eskaera, paperean, eskuz edo postaz (bulego-helbideak honako helbide honetan aurkituko dituzu:

http://www.euskaltzaindia.net/bulego_helbideak).

Ohartu, dena den, Donostiako bulegoaren helbide berriaz: Tolare, Almortza z/g. Bulegoetako ordutegia honako hau da: astelehenetik ostiralera goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00etara. Euskaltzaindiak zure eskaera jaso duela adierazten duen froga-agiria emango dizu, eskaera aurkeztu duzun bide beretik.

Ez duzu oraingoz inolako agiririk aurkeztu beharrik. **Epaimahaiak idatzizko ariketara deitzen bazaitu**, ordea, **eraman itzazu zurekin eskabide-orrian aipatu dituzun agiri guztiak** (ikas-tituluak, euskara-agiria, arlo jakin batean izandako esperientziaren froga-agiria...).

Eskaera aurkezten duenak deialdia bera kudeatzeko bere datuak fitxategi batean jasoko direla onartzen du. Fitxategi horri dagokionean jakinarazten dizugu sarbide-, aurkaritza-, zuzenketa- eta ezeztapen-eskubideak Euskaltzaindian bertan gauzatu ditzakezula.